

Agurra

URRUTIA BADIOLA, Andres
Euskaltzainburua

Donostiako alkatea,
Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburua eta sailburuordea,
Donostiako Udalaren bozeramaleak,
jaun-andreak,

Arratsalde on:

Aldiak aldi, aldikada berria bizi du azken urteetan Euskaltzaindiak. Ez da lehen bere historian zehar, eta ez dut uste azkena ere izango denik.

Urte-andana igaro da, azkenekoz Euskaltzaindia donostiarren etxean bildu zenetik; zehatz esateko, badira hogeita bat urte, ia mende laurden, lehendabizikoz hona hurreratu zenetik. Egia esan, urte horietan, aldaketak izan ditu Euskararen Akademiak, eta aldaketak izan dituzte, orobat, Donostiako Udalak eta gizarteak berak ere bai.

Aldaketak gorabehera, hogeita bat urte geroago, betiko adore eta kementarekin dator Euskaltzaindia, kide berriaren sarrera-hitzaldia entzuteru.

Lourdes Oñederra donostiarra da, eta Donostiara dator euskaltzain osotasuna hartzera. Hala hartuko du Euskaltzaindiak, bere herritarren artean, abegiz eta amultsuki.

Ohikoa izaten da halakoetan euskaltzain oso berriaren merituak aipatzea. Hartara, irakaskuntzan, ikerketan eta literatura-sorkuntzan nahiz

itzulpenean, haren izena sona handiko gertatzen da, euskalgintzaren nahiz euskalaritzaren alorretan.

Badu argitasunik, badu jarraitutasunik; badu, hitz gutxitan esateko, Euskaltzaindiari ekarpenak egiteko molde eta trebeziarik.

Horrela hartzen dugu gure artean. Halaxe ospatuko dugu, poztasun osoarekin, haren sarrera-hitzaldia.

Poztasun horrekin batera, hitz batzuk esan nahiko nituzke orain gaztelaniaz, ohiko izan ez arren.

* * *

Palabras que dirijo al Alcalde y a toda la corporación municipal de San Sebastián/Donostia, para agradecerles su acogida, y reivindicar el papel de Euskaltzaindia como institución incardinada en Donostia, en Gipuzkoa y en Euskal Herria, institución que quiere ofrecer, hoy, un nuevo esfuerzo para impulsar un centro de investigación y difusión del euskera en Donostia, que espero sea pronto una realidad gracias a la acogida del Ayuntamiento de Donostia y a la iniciativa de este Ayuntamiento y de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

* * *

Eskerrik asko zuoi guztioi, gaur laguntzen diguzuelako; Eusko Jaurlaritzari, Arabako, Bizkaiko nahiz Gipuzkoako foru-aldundiei, Nafarroako Gobernuari, Euskararen Erakunde Publikoari, Espainiako Gobernuari, eta, halaber, hainbat udal eta herritarri, egunero ematen dizkiguzuelako aurrera egiteko arnasa eta baliabideak.

Horiek, ziur egon, gizarteari itzultzen dizkiogu, zuoi, hain zuzen ere. Lan horretan partaide eta lankide izateko, oraintxe deituko dugu, deitu ere, Lourdes Oñederra, gure artera etorri eta bere sarrera-hitzaldia egin dezan.

Mila esker